

Dekalogo haurtzaroan eta nerabezaroan pantailak segurtasunez erabiltzeko



العربية
Български
English
Français
Română

1. Non.

Etxean, ordenagailua, kotsola..., hobe leku komun batean.



2. Noiz.

Errespetatu lo orduak, harremanak, ikasketak, bestelako jolasak....



3. Zer.

Sarbideak, edukiak, jolasak... neska edo mutil bakoitzaren adin eta garapen mailarako egokiak izan daitezela.



4. Nola.

Norberaren pribatutasuna eta intimitatea zainduz. Norberaren datuak, informazioak eta irudiak babestuz.



5. Errespetuz.

Beti eskatu baimena etiketatzeko eta irudiak eta informazioak pasatzeko. Kontuan hartu norekin partekatzen diren.



6. Zenbat.

Haiekin bizi, ez haientzat. Adostu zenbat denboran erabili.



7. Zertarako.

Pantailak eta Internet helburu zehatzekin erabili, ez asperduraz.



8. Alternatibak.

Beste aisia mota batzuk proposatzea, familiarekin partekatzea jarduerak.



9. Erabilera desagokia.

Hitz egin ikusmenean izan ditzakeen ondorioez, isolamenduaz, sedentarismoaz, arreta galtzeaz...



10. Beti.

Hitz egin, entzun, galdetu eta laguntza eskatu. Etxean ematen dugun ereduaz hausnartu.

